

Unibasqen 2013 – 2016rako Plan Estrategikoa

Sarrera

Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziari buruzko ekainaren 28ko 13/2012 Legea onartu izanak esparru berri bat ekarri du berekin, non Agentziak bere eginkizunak garatzen dituen zuzenbide pribatuko erakunde publikoko forma juridikoarekin, Eusko Jaurlaritzan unibertsitateen alorreko eskumenak dituen sailari atxikia. Lege horren “Kontuak ematea” izeneko 5. artikulua barruan, 6. puntuan, honako hau ezarri da: “Agentziak lau urterako plan estrategikoa egingo du, eta plan horren arabera egin beharko da urteko kudeaketa-plana eta haren betetzeari buruzko azterketa”.

Plan hori egiteko, honako hauek hartu dira kontuan; agentziaren ibilbidea; 2011n egindako Komunikazio Planari buruzko azterketa, non agentziaren ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak nabarmentzen ziren; “Primer Simposio Unibasq: lecciones aprendidas” dokumentua, foro horretan aztertutako gaiak laburbiltzen dituen; Europako Goi-mailako Hezkuntzaren Esparruan Kalitatea Bermatzeko Irizpide eta Jarraibideak, ENQA European Association for Quality Assurance in Higher Education elkarteak argitaratuak; eta Unibasqen 2010-2013rako Plan Estrategikoa, Unibasqen Administrazio Kontseiluak 2010eko irailaren 10ean onartu zuena. Plan estrategiko honen bitartez tresna bat eratu nahi da, kalitatea kudeatzeko barne-sistemaren esparruan aukera emango duena erakundeak Euskal Unibertsitate Sistemaren barruan bete nahi dituen helburuak, xedek eta eginkizunak betetzea, interes-taldeen premiei erantzunez eta legeek esleitutako gizarte-erantzukizuna betez. Helburu, xede eta eginkizun horiek Euskal Unibertsitate Sistemaren kalitatea sustatzea, hobetzea eta bermatzea dute jomugan, eta, ildo horretan, gizarteari, administrazio publikoei, unibertsitateei eta hezkuntza-alorreko eta zientzia- eta teknologia-alorreko bestelako agenteei informazioa ematea, agentziaren eskumeneko eginkizunekin zerikusia duten erabakiak hartzeko prozesuetan.

Plan Estrategikoaren osagarri, Urteko Kudeaketa Plana egingo da Plan Estrategikoa betetzeko baldintzetara egokituta, unean uneko premiak alde batera utzi gabe, eta azken plan horretan

ekintza bakoitzerako adierazleak ezarriko dira, baita neurketa, denboralizazioa eta erantzukizunak ere.

“Aztertu, iragana azter daiteke, baina etorkizuna ez, etorkizuna diseinatu behar da”

Edward de Bono

MISIOA, IKUSPEGIA, BALIOAK ETA ETIKA

Misioa

- Euskal unibertsitate-sistema hobetzen laguntzea, sistemaren kalitatea sustatuz, goi-hezkuntzan inplikaturako interes-taldeak kontuan hartuz.

Ikuspegia

- Unibasqek bere jarduerak garatzen ditu independentziaz, gardentasunez, objektibotasunez, eraginkortasunez eta gaitasunez, goi-mailako hezkuntzaren kalitatea bermatzeko nazioarteko estandarretan oinarrituta.

Balioak

- Agentziaren balioak agentziaren etika-kodean jaso dira zehatz-mehatz, eta honako epigrafe hauetan labur-labur jaso ditugu.
 - **Independentzia eta autonomia** betebeharrak betetzean.
 - **Gardentasuna** prozesu, irizpide eta formularioak komunikatzean.
 - **Erabiltzaileari orientazioa ematea**, interes-taldeen premiei arreta eskainiz.
 - **Unibertsitateen autonomia eta aniztasuna errespetatzea**.
 - **Gizarte-erantzukizuna** agindutako zereginetan, esleitutako baliabideak eraginkortasunez erabiliz eta kontuak emanez, urtean behin memoria bat argitaratuz.
 - Goi-hezkuntzan inplikaturako agentei **laguntzea** xede komunak lortzeko.
 - Estatuko eta nazioarteko agentzia eta sareekiko **lankidetz**a eginkizunak eta prozesuak garatzeko.
 - **Etengabeko hobekuntzan eta berrikuntzan inplikatz**ea prozesu guztiak garatzeko.

ARDATZ ESTRATEGIKOAK

- 1. Zuzentzea eta antolatzea**
- 2. Pertsonak**
- 3. Ebaluazioa**
- 4. Lankidetzak**
- 5. Komunikazioa**
- 6. Ikasleak**

1. ardatza: Zuzentzea eta antolatzea

1.1 helburua: Baliabideen erabilera eraginkorra ziurtatzea.

1.1.1 ekintza: Lehendik dauden baliabideei eustea.

1.2 helburua: Informazioaren segurtasuna bermatzea.

1.2.1 ekintza: Dokumentuak antolatzea artxibo-irizpideei jarraiki.

1.2.2 ekintza: Antolamenduari eustea, eta, egoki ikusten bada, hobekuntzak eranstea.

1.3 helburua: Datuak babesteari buruzko Legea aplikatzea.

1.3.1 ekintza: Datuak babesteari buruzko Legearen aplikazioaren jarraipenerako prozedura sortzea.

1.3.2 ekintza: Aurreko prozedura aplikatzea eta berraztertzea.

1.4 helburua: Barne-antolamendua hobetzea.

1.4.1 ekintza: Garatu beharreko jarduerak eta zereginak zehaztea.

1.4.2 ekintza: Lana eraginkortasunez banatzea.

1.5 helburua: Kalitatea bermatzeko barne-sistema ezartzea.

1.5.1 ekintza: Kalitate-kudeaketari buruzko prestakuntza.

1.5.2 ekintza: Prozesu eta azpiprosesu nagusien identifikazioa eta deskribapena.

1.5.3 ekintza: Beharrezko eskuliburu, prozedura eta dokumentuak egitea.

1.5.4 ekintza: Kalitate Batzordea sendotzea.

1.5.5 ekintza: Kalitatea bermatzeko barne-sistema berraztertzea.

1.6 helburua: Arriskuen kudeaketako eta barne-kontrolako eginkizuna ezartzea.

1.6.1 ekintza: Arrisku nagusiak identifikatu eta deskribatzea.

1.6.2 ekintza: Arriskuen kudeaketarako eta barne-kontrolerako beharrezko dokumentuak, ekintza-plana, prozedurak eta eskuliburuak egitea.

1.6.3 ekintza: Arriskuen kudeaketa eta barne-kontrola berraztertzea.

1.7 helburua: Agentziaren jardueraren onspena lortzea, nazioarteko estandarrei jarraiki.

1.7.1 ekintza: Agentziaren jarduera nazioarteko estandarretara egokitzea.

1.7.2 ekintza: Nazioarteko estandarrak betetzea.

1.8 helburua: Autonomia eta independentzia indartzea erakundearen funtzionamenduan, indarreko lege-esparrua oinarritzat hartuta.

1.8.1 ekintza: Etika Batzordea eratzea eta haren esku tresna egokiak jartzea, eginkizunak behar bezala bete ditzan.

1.8.2 ekintza: Programa-kontratua sinatzea Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin.

1.9 helburua: Agentziaren baitan eta unibertsitateekin eta Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean, erakunde-ebaluazioko eta prospektibako ebaluazio-programa berrien inguruko hausnarketa sustatzea.

1.9.1 ekintza: Euskal unibertsitate-sistemaren kalitatearekin zerikusia duten gaiei buruz aholku ematea.

2. ardatza: Pertsonak

2.1 helburua: Agentziaren prestakuntza-politika garatzea.

- 2.1.1 ekintza: Ebaluatzaileentzako prestakuntza-planak egitea eta horien jarraipena egitea.
- 2.1.2 ekintza: Agentziaren langileentzako prestakuntza-planak egitea.
- 2.1.3 ekintza: Agentziaren autoprestakuntza agentziarentzat.
- 2.1.4 ekintza: Eskatzaileentzako prestakuntza-planak egitea eta abar.

2.2 helburua: Langileen garapen profesionala erraztea.

- 2.2.1 ekintza: Motibazioa eta gogobetetzea hobetzeko mekanismoak ezartzea.
- 2.2.2 ekintza: Langileen baldintzak hobetzea.
- 2.2.3 ekintza: Lantaldeen eta koordinazio-bileren sorkuntza sustatzea.
- 2.2.4 ekintza: Langileen gaitasunak gidatzea, bultzatzea eta koordinatzea.
- 2.2.5 ekintza: Barne-komunikazioa, zereginen banaketa eta erantzukizunen definizioa hobetzea.
- 2.2.6 ekintza: Erantzukizunak eskuordetzea, gaitasuna onetsiz eta funtsezko zereginak egitean benetako laguntza eskainiz.
- 2.2.7 ekintza: Alternatibak aztertzea eta karrera profesionalaren garapena abiaraztea.
- 2.2.8 ekintza: Jarduera eta ekimenen proposamena eta jardunbide egokien hedapena erraztea.

2.3 helburua: Barne-kontrola hobetzeko prozesuak sendotzea.

- 2.3.1 ekintza.: Lehendik dauden prozesuak ebaluatzea eta prozesu berriak ikertzea, barne-kontrola hobetzeko eta jarduna betetzeko.

2.4 helburua: Ebaluatzaileen bankua.

- 2.4.1 ekintza.: Ebaluatzaileen bankua garatzea.
- 2.4.2 ekintza.: Ebaluatzaileak kudeatzeko barne-sistemaren eraginkortasuna bermatzea.

3. ardatza: Ebaluazioa

3.1 helburua: Kalitatea Kudeatzeko Sistema Integralaren barruan neurriak eta prozedurak zehaztea, ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozesuak etengabe hobetzeko.

3.1.1 ekintza.: Ebaluazio-prozesuak etengabe hobetzeko neurriak eta prozedurak garatzea.

3.1.2 ekintza.: Prozeduren ezarpena eta jarraipena.

3.2 helburua: Goi-mailako hezkuntzan inplikaturako agenteekiko prospektiba eta hobekuntza bultzatzea, hezkuntza hobetzeko ebaluazio-programen bitartez.

3.2.1 ekintza: Hausnarketa sustatzea ebaluazio-prozesuetan inplikaturako alderdietan.

3.2.2 ekintza: Ebaluazio-prozesuen metaebaluazioa, ebaluatzaileen eskutik.

3.2.3 ekintza: Batzordeetako presidenteekin biltzea prozesuak ebaluatzeko.

3.2.4 ekintza: Ebaluazioetako emaitzetan jarraipen-prozesuak ezartzea.

3.3 helburua: Ebaluazioa garatzea, nazioartean onetsitako jarraibide eta estandarrei jarraiki.

3.3.1 ekintza: Agentzia ebaluazio-erreferentzia bihurtzea Euskal Autonomia Erkidegoan.

3.4 helburua: Ebaluazio-prozesuen burokratizazioa arintzea.

3.4.1 ekintza: Administrazio elektronikari buruzko Legea garatzea prozesuen kudeaketan.

3.4.2 ekintza: Izapidetzeko aplikazio informatikoak garatzea eta mantentzea.

3.4.3 ekintza: Agentziaren bitartez, curriculum normalizatuaren garapena erraztea.

3.4.4 ekintza: Prozesuak aztertzea eta Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateekiko lankidetzahitzarmenak ezartzea, ebaluazio-prozesuekin zerikusia duen informazioa ofizioz elkartrukatzeko.

4. ardatza: Lankidetza

4.1 helburua: Goi-mailako Hezkuntza Sistemaren itxaropenak eta premiak betetzea.

- 4.1.1 ekintza: Aldian-aldian, ingurune sozioekonomikoko agenteekin biltzea.
- 4.1.2 ekintza: Komunikazio iraunkorreko kanalak bultzatzea.
- 4.1.3 ekintza: Iradokizunen emaitza eta ekintzak aztertzea eta argitaratzea.
- 4.1.4 ekintza: Atzemandako premietara egokitutako zerbitzu-katalogoa eskaintzea.

4.2 helburua: Unibertsitateen eta gainerako agenteen artean jardunbide egokiak transmititzeko bitartekari izatea.

- 4.2.1 ekintza: Agentziaren eskumeneren esparruan jardunbide egokiak argitaratu eta hedatzea, interes-taldeen artean.

4.3 helburua: Goi-mailako Hezkuntzarako Europar Esparruaren eta beste esparru batzuen kalitatea bermatzeko sare eta agentziekiko harremanak areagotzea eta sendotzea.

- 4.3.1 ekintza: Unibertsitateen Kalitaterako Agentzien Espainiako Sarean parte hartzen jarraitzea.
- 4.3.2 ekintza: Agentzien arteko lan-bilerak sustatzea.
- 4.3.3 ekintza: Agentzia-sareetako lantaldeetan parte hartzea.
- 4.3.4 ekintza: Berrikuntza-proiektuak sustatzea beste agentzia edo interes-talde batzuekin elkarlanean, interes komuneko jarduerak garatzeko.

5. ardatza: Komunikazioa

5.1 helburua: Erabiltzaileen premien berri izatea, premia horiek betetzeko.

5.1.1 ekintza.: Iradokizun-ontzi bat ezartzea.

5.1.2 ekintza.: Bitarteko guztietatik jasotako iradokizunak erregistratzea.

5.1.3 ekintza: Iradokizunak ebaztea eta/edo izapidetzea.

5.2 helburua: Erabiltzaileei, prozesuei buruzko etengabeko informazioa bermatzea, fase guztietan.

5.2.1 ekintza: Prozedurak, aldaketak, berritasunak eta abar etengabe argitaratzea.

5.2.2 ekintza: Eskatzaileei izapidetzearen fase bakoitzaren egoeraren berri ematea.

5.3 helburua: Kalitate-arloan jardunbide egokiak hedatzeko plana egitea.

5.3.1 ekintza: Euskal unibertsitate-sistemaren kalitatearekin zerikusia duten gaiei buruz aholku ematea.

5.3.2 ekintza: Materialak egitea: eskuliburuak, interes-taldeei laguntzeko gidak, memoriak, txostenak eta abar.

5.3.3 ekintza: Aldian-aldian gizarteari informazioa ematea, prentsaren, jardunaldien, sinposioen, mintegien bitartez eta abar.

5.4 helburua: Web-orria mantentzea eta nazioarteko gardentasun-estandarretara egokitzea.

5.5 helburua: Irudi korporatiboa eta estiloa mantentzea agentziak ematen dituen dokumentu guztietan.

5.6 helburua: Aldian-aldian langileak koordinatzeko bilerak egitea.

5.7 helburua: Agentziaren Zerbitzu Gutuna egitea eta argitaratzea.

5.8 helburua: Interes-taldeak prestatzea Agentziaren eskumeneko eremuekin zerikusia duten gaietan.

6. ardatza: Ikasleak

6.1 helburua: Ikasleek agentziaren jardueretan parte hartzen dutela bermatzea.

6.1.1 ekintza: Ikasle-elkarte eta -sareekiko harremanak ezartzea, Unibasqen jardueretan parte har dezaten sustatzeko .

6.1.2 ekintza: Euskal ikasleek beste herrialde batzuetako trukean parte har dezaten sustatzea.

6.2 helburua: Ikasleek agentzien jardueretan parte har dezaten sustatzea, eta haien inplikazioa indartzea.

6.2.1 ekintza: Ikasleak prestatzeko tailerrak, orientazio-jardunaldiak eta abar antolatzea.

6.3 helburua: Ikasleen ordezkartza-organoekiko lankidetzeta-mekanismoak ezartzea.